



AGINDUA, INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO SAILBURUARENA, EUSKADIKO INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN LEGE-AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEA ERABAKITZEN DUENA.

Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra onartu izanak arau-esparru bateratu bat ekarri zuen bere garaian, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politika egikaritzeko. Lege hori aitzindaria izan zen bere garaian, eta azken urteetan, politika horren gidari izan da bere eremu desberdinetan: ingurumen-ebaluazioa, hondakinen kudeaketa eta kutsaduraren kontrola, besteak beste.

Ingurumena bezalako gaietan, ordea, etengabe egokitu behar izaten da gizarteak berak eskatzen dituen premia berrietara. Horregatik, azken urte hauetan, arau-mailako hainbat testu onartu dira, Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak erregulatzen duen gaien eragina izan dutenak.

Euskadiko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra onartu zela 20 urte baino gehiago igaro diren honetan, ingurumenari buruzko lege-korpus handi bat daukagu garatuta, Europar Batasunak bultzatuta, eta korpus hori estatu-mailako oinarritzko araudira eraman denez, beharrezkoa da Euskadiko Ingurumen Administrazioaren arau-esparrua egokitzea.

Beraz, Autonomia Estatutuak EAERI aitortzen dizkion eskumenak baliatuz (11. artikulua) eta Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta haren lurralde historikoetako foru-erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, ingurumenaren arloko beste arau baten lanketa sustatu behar da (otsailaren 27ko 3/1998 Legea ordeztuko duena), eta aldi honetan pilatutako eskarmentuan oinarrituta, erkidego mailako ingurumen-politika berriztatu baten oinarriak ezarri behar dira, aurre egin ahal izateko ingurumenaren arloan dauden eskaera sozialei eta erronka aldakorrei.

Lege-aurreproiektu hau egiteko eta izapidetzeko prozedura egokitu egin beharko da Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean jasotako preskripzioetara.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, aipatu prozedura horri hasiera emateko, Agindu bat eman behar du proiektatutako arauan lantzen den gaien eskumena duen saileko titularrak.

Halaber, Gobernu Kontseiluak 2017ko abenduaren 12an hartutako Erabakiarekin bat etorriz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarritako aurretiazko kontsulta egin behar da, egoitza elektronikoa, LEGEGUNEAN eta Irekian.



Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak dauka prozedurari hasiera emateko eskumena, Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan ezarritakoa betez (24/2016 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzekoa).

Horregatik, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 5.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz (prozedura hasteko aginduak kontuan hartu beharreko edukia zehazten da bertan), hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Agindua ematea Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Lege Aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera emateko.

Bigarrena.- Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza izendatzea organo arduradun, horren izapideak egiteko, Zerbitzu Zuzendaritzarekin elkarlanean.

Hirugarrena.- Agindua ematea Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarritako aurretiazko kontsulta tramitea egiteko.

Laugarrena.- Proiektua prestatzeko, agindu honekin batera doan agiri erantsian jasotzen diren premisak hartuko dira kontuan, Xedapen Orokorrak egiteko Prozedura arautzen duen abenduaren 22ko 8/2003 Legean aurreikusitako moduan.

Vitoria-Gasteiz,

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua

Sin. IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.
(Elektronikoki sinatua)

Eranskina. Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Lege Aurreproiektua egiteko premisak.

1.- Arauaren helburua eta xedea.

Arauaren helburua da EAEn ingurumena babesteko arau-esparru eguneratu bat ezartzea, eta pertsona fisiko zein juridikoen eskubideak eta betebeharrak zehaztea, besteak beste, honako helburu hauek lortzeko:

- ✓ Herritarrak babestea, ingurumen-presio eta arriskuen aurrean.
- ✓ Baliabideak efizienteki kudeatzea, ekonomia jasangarri eta hipokarboniko bat sustatuz.
- ✓ Klima-aldaketaren eragina mugatzea.
- ✓ Ingurumena babesteko erantzunkidetasun publiko-pribatua bultzatzea.
- ✓ Ingurumen Administrazioaren funtzionamendua arintzea eta sinplifikatzea.
- ✓ Ingurumen-eragina duten jardueren gainean esku hartzeko teknikak erregulatzea.
- ✓ Ingurumenari buruzko ezagutza eta informazioaren oinarria hobetzea.

2.- Arauaren bideragarritasun juridiko eta materialaren balioespena.

1. Bideragarritasun juridikoa.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 11.1.a) artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoa da ingurumen- eta ekologia-arloko Estatuko oinarritzko legeria garatzea eta betearaztea, Autonomia Erkidegoaren lurraldean.

Halaber, Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta haren lurralde historikoetako foru-erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 6. artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eskumena da Autonomia Estatutuaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion gai guztiei buruz legeak egitea eta horiek betearaztea, betiere, gai horiek ez bazaizkie lurralde historikoetako foru-organoei aitortzen edo esleitzen, Estatutuan, aipatutako legean edo ondorengo lege batzuetan. Artikulu horretan ezartzen da lege-mailako arauak emateko eskumena legebiltzarrak izango duela esklusiboki.

Adierazitako araudia betez, eta kontuan hartuta lege berriak erregulatuko duen arloa ingurumenaren babesa izango dela (Agindu honetan ezartzen da, hain zuzen ere, lege hori egiten hastea), Autonomia Erkidegoko erakunde komunen

eskumenekoa izango da Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legea onartzea, Eusko Legebiltzarraren bidez.

Eskumen hori baliatuz, Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra onartu zen, zeinaren ondorioz arau-esparru bateratu bat ezarri baitzen, bere garaian, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politika egikaritzeko.

Ingurumena bezalako gaietan, ordea, etengabe egokitu behar izaten da gizarteak berak eskatzen dituen premia berrietara. Horregatik, azken urte hauetan, arau-mailako hainbat testu onartu dira, Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak erregulatzen duen gaian eragina izan dutenak.

Horrela, otsailaren 27ko 3/1998 Legea onartu zenez geroztik, Europar Batasunaren mailan hainbat arau-xedapen jarri dira indarrean, besteak beste, honako gai hauen ingurukoak: aldaketa klimatikoaren aurkako borroka; kutsaduraren kontrol bateratua; ingurumenaren arloko informaziorako sarbidea; biodibertsitatearen babesa, edo hondakinen ekoizpena eta kudeaketa.

Horregatik, behar bezala justifikatuta dago arau berri bat egin beharra dagoela, esparru juridiko eguneratu bat ezarriko duena, Autonomia Erkidego honen eremuan ingurumenaren arloko oinarritzko alderdiei erantzuteko.

2. Bideragarritasun materiala.

Lege-aurreproiektuarekin erregulatu nahi den eremu materiala, adierazi den bezala, ekologia eta ingurumena babestearena da.

Arau berrian, honako hauek jasoko dira: EAEn ingurumenaren arloko politika zuzenduko duten printzipioak; pertsonen eskubideak eta betebeharrak; administrazio publiko bakoitzari dagozkion eskumenak eta horien exekuziorako koordinazio-mekanismoak, eta informazioa eskuratzeko, parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubidea guztiz baliatzeko bermea.

Arauaren alderdirik berrienetako bat da ingurumen-eragina duten jardueretarako esku-hartze administratiborako eredu berri bat diseinatzea, honetara bideratuta: ingurumenean eta pertsonen osasunean izan ditzaketen eraginak murriztea eta kontrolatzea; ingurumena babesteko behar-beharrezkoak ez diren karga administratiboak arintzea eta murriztea, eta jarduera horien antolakuntzan esku hartzen duten organo eta administrazio publikoen arteko koordinazio-mekanismoak bultzatzea.

Hainbat tresna bideratu dira, halaber, ingurumenaren hobekuntza bultzatzeko; horien artean daude, besteak beste, betiko tresna borondatezkoak eta merkatukoak, hala nola erabakiak, ingurumen-kudeaketako sistemak eta ekoziurtagiriak, baita ingurumen-fiskalitatea ere.

Azkenik, lege-aurreproiektuak eguneratu egiten du otsailaren 27ko 3/1998 Legean jasotako zehapen-erregimena, eta ingurumen-legezkotasuna

berrezartzeko prozedura berri bat dakar, desberdina eta autonomia, prozedura hastea eragin duen pertsona fisiko edo juridikoari ezarri ahal izango litzaiokeen zehapen-prozedurarekiko.

3.- Antolamendu juridikoan izango duen eragina.

Lege-aurreproiektuak erabat baliogabetuko du Euskadiko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra.

Halaber, egokitu egin beharko da azaroaren 25eko 27/1983 Legea, ingurumenean esku hartzeko proposatzen diren erregimen berriek aldatu egingo baitituzte lurralde historikoen eskumenak, erakunde komunek sailkatutako jardueren gainean neurri zuzentzaileak ezartzeko, ikuskapena egiteko edo zehatzeko ematen dituzten arauen garapenari eta betearazpenari dagokionez (lehen, Jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko erregelamendua).

Legeak, behin onartuta, herritarrek oro har dituzten eskubide eta obligazioetan izango du eragina, eta, adierazi den bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek ingurumena babesteari dagokionez baliatzen dituzten eskumenetan.

Lege-aurreproiektuaren helburua kontuan izanik, pentsatzekoa da gerora legea garatzeko erregelamendu-arauak onartu beharko direla.

Era berean, Lege-aurreproiektuak ekainaren 23ko 1/2006 Legea Urarenaren artikulua zehatz batzuk aldatuko ditu.

4.- Proiektatutako arauaren eragina aurrekontuetan.

Azaroaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikuluekin bat etorritik, dagokion memoria ekonomikoa egingo da, zeinak aztertuko baitu egitekoa den araua aplikatzearen ondoriozko kostua zein izango den eta hori aplikatzeak EAEko Aurrekontu Orokorretan zer nolako eragina izango duen. Memoria horretan jasoko da, halaber, arauak beste administrazio batzuetan eta partikularretan izango duen eraginaren analisi bat.

Memoria horren bidez, arauak ekonomian oro har duen eragina ere aztertu behar da, Merkatu-batasuna bermatzeari buruzko abenduaren 9ko 20/2013 Legean (2013-12-10eko BOE) eta Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legean (2012-07-06ko EHAA) ezarritakoa betez.

Arau-hauste administratiboan motak jasoko dituen zehapen-erregimena aurreikusten da, eta horrek zehapen ekonomikoak ezartzea ekarriko du; hau da, diru-sarrerak jasoko dira, eta horiek ere kontuan hartu beharko dira.

5.- Bidezko izapideak eta txostenak.

Arau-xedapenaren testua erredaktatzeko, agindu honetan esandakoa hartuko da oinarri, eta kontuan izango da zein aukera diren ondoen egokitzen direnak lortu nahi diren helburuetara eta, hala badagokio, aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezketasuna bermatzeko eskatzen diren txosten eta kontsulten emaitzetara.

- ✓ Administrazio honetako gainerako sailei eta Gobernuaren eragile juridikoei jakinaraziko zaie araugintza-ekimen hau. Horretarako, **LEGESAREA** lankidetzarako eremuan sartuko da prozedurari hasiera emateko agindu hau.
- ✓ Lege-aurreproiektuaren testuaren erredakzioa Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari esleitu zaio. Legea erredaktatzerakoan, kontuan izan behar dira erregulazio onaren printzipioak (urriaren 1eko 39/2015 Legea, 129. Artikulua, eta 8/2003 Legea, 6. artikulua). Halaber, errespetatu egin behar da, batetik, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 16. artikulua ondoriozko betekizuna, ingurumen-araudia egiteko interesa dutenen parte-hartze erreala eta eraginkorra bermatzekoa, eta, bestetik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 5. artikulua ondoriozko betekizuna, udalerrien parte-hartze aktiboa exijitzekoa erkidego mailako arauak egiteko prozesuetan, baldin eta arau horiek zuzenean eragiten badute beren eskumenetan, eta eskumen horien artean daude, besteak beste, ingurumenaren defentsa eta garapen jasagarria.
- ✓ Lege-aurreproiektua Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Akordioaren arabera erredaktatuko da, zeinak onartzen baititu lege, legegintza-dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen duten xedapen orokorrak **bi hizkuntzatan egiteko** neurriak.
- ✓ **Memoria** hauek erantsiko zaizkio arau-proposamenari: **justifikatzailea eta ekonomikoa**; azken horretan, enpresen sorreran, abian jartzean eta funtzionamenduan arauak daukan eraginaren azken ebaluazioa sartuko da.
- ✓ Aurreproiektua erredaktatzearekin batera, **Generoaren araberako eraginari buruzko txostena** egingo da, Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiarekin bat etorriz (genero-eraginaren aurreko ebaluazioa egiteko jarraibideak onartzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko Erabakia).
- ✓ Lege-aurreproiektuak Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren **aldez aurreko onarpena** jaso beharko du, behin erredaktatuta dagoenean.
- ✓ Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.1 artikuluaekin bat etorriz (ekainaren 2ko 8/2016 Legearen bidez aldatu zen lege hori), Eusko Legebiltzarrera **bidaliko da** xedapenaren testua.

- ✓ Aldez aurreko onarpenaren agindua, eta, harekin batera, araugintza-proiektua, **Legesarea** lankidetzarako eremuan emango dira argitara.
- ✓ Lege-aurreproiektua Foru Aldundiei eta Autonomia Erkidegoko udalei aurkeztuko zaie **entzunaldiaren izapidea** egin dezaten, zuzenean edo EUDELen bidez.
- ✓ Horrez gain, **herritarrek parte hartzeko** fase bat irekiko da, informazio publikoa barne hartuko duena, eta, halaber, kontsulta-fase bat, ingurumen arloko informazioa eskuratzeko, parte-hartze publikorako eta justiziarako eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 23. artikulua araberaren interesdun diren pertsona juridikoentzat.

Prozedura izapidetzean, aginduzko txosten hauek eskatuko dira:

- a) Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzako aholkularitza juridikoak egindako txostena.
- b) Emakunderen txostena.
- c) Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Herri Administrazioen Hizkuntza Normalizaziorako Zuzendaritzaren txostena.
- d) Euskal Herriko Ingurumen Batzordearen txostena.
- e) Ingurumenerako Aholku Kontseiluaren txostena.
- f) Naturzaintzaren txostena.
- g) EAEko Ur Kontseiluaren txostena.
- h) Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren irizpena.
- i) Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena.
- j) Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena.
- k) Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikorako Bulegoaren txostena.
- l) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.2 artikuluari jarraikiz (lege hori ekainaren 2ko 8/2016 Legeak aldatu zuen), Aholku Batzorde Juridikora bidaltzen den dokumentazioa Eusko Legebiltzarrerara ere bidaliko da, legebiltzar-taldeek horren berri izan dezaten.

Prozeduran zehar garrantzi juridikodun informazioa sortuz doan heinean, argitaratze aktiboa egingo da, gardentasunari, informazio publikora iristeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoa betez.

Espedienteari gehituko zaizkio egindako txostenak, **alegazioei buruzko memoria-txostena** eta **prozedura guztiari buruzko memoria labur bat**, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.2 artikuluan adierazitako edukiarekin, eta hori guztia Gobernu Kontseiluari bidaliko zaio, onarpena eman diezaion.

Behin onartuta, araua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

6.- Proposatutako erregulazioaren edukia.

Arauk, gutxienez, honako hauek erregulatuko ditu:

- a) EAEko herritarrak babestea, ingurumen-presio eta -arriskuetatik.
- b) Baliabideak efizienteki kudeatzea, eta sustatzea ekonomia jasangarri eta hipokarboniko bat, aldaketa klimatikoaren eragina mugatzen duena.
- c) Ingurumena babesteko erantzunkidetasun publiko-pribatua bultzatzea.
- d) Informazioa eskuratzea eta parte-hartze publikoa, bereziki garrantzitsua baita hori, herritarrak ingurumenaren inguruko kezka erakusten duten honetan.
- e) Administrazio-sinplifikazioa irizpide moduan hartuta, Administrazioak esku hartzeko prozedurak erregulatzea eta antolatzea, eta proiektuak nahiz jarduerak errazago abian jartzeko aukera ematea, ingurumenaren eta osasunaren babesari kalterik egin gabe.

7.- Europar Batasunean egin beharreko izapideak.

Ez da proiektuaren inguruko izapiderik egin beharrik izango Europar Batasunean. Izan ere, horren helburua ez da Zuzentarauen transposizioa egitea, eta ez dio eragiten estatu kideen arteko lehiari. Eta diru-laguntza izaerako programa edo deialdirik ere ez dauka.

8.- Araugintza-testua bi hizkuntzetan erredaktatzeko metodoa.

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1. artikuluan xedatzen dena betetzeko, honako sistema hau erabiliko da: IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak arau-testuaren gaztelaniazko/euskarazko bertsioaren itzulpena egingo du.